

Berriketan



KALEKANTOI TALDEA

Baleazaleen arrastoan euskal musika zabalduz

Usa
Elektrizitatea


**Argia dakargu
zure etxera!**

**Instalazioak
Konponketak
Inspekzioak**

624 005 827



ERMUA





AURKIBIDEA



BERRIKETAN 309

2025eko iraila

Azaleko irudiaren egilea:
Kalekantoit taldea



10 ALBISTEAK
Jai giroan murgiltzeko
egitaraua dakar, beste
urte batez, Debako
Euskal Jaiak



14 ALBISTEAK
Jon Lafuente
fisikari debarrak Volker
Heine saria jaso du
Suitzan



15 ALBISTEAK
Ikasturte hasierarekin
batera, irailan zabaldu
ditu ateak Itziaroko
eskola berriak



16 ELKARRIZKETA
Kalekantoit taldeko
kideekin berriketan,
Islandiara egindako
bidaia hizpide hartuta



25 ELKARRIZKETA
Azaroan Munduko
Jiu-Jitsu Txapelketan
lehiatuko den Oinatz
Irustarekin solasean



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo
diren jarduerak eta
ekimenak jaso ditugu
atal honetan

Jarrai gaitzazu!



berriketan.eus

Zuhatzza euskara
elkartea

LAGUNTZAILEAK



DEBako UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatzza Euskara Elkartea

HELBIDEA

Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@berriketan.eus

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatzza.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bediauneta

eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/2009

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantziak. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@berriketan.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Kultur dinamizatzailea kontratatzeko lan deialdia

Elkartearen barne dinamika hauspotzeko eta herriko kultur eszenari ekarpena egiteko asmoz, dinamizatzaile bat kontratatzeko erabakia hartu zuen Debako Kultur Elkartek duela bost urte. Denbora tarte honetan egindako lanaren ondorioz, gure elkartearen jardueren eskaintza aberastu egin da; egitasmo berriak sortu ditugu, herriko eragileen arteko harremanak sendotu ditugu eta gure eguneroko funtzionamendua hobetu da.

Hala ere, epe ertainean bere postua lagako duela iragarri zuen gaur egungo dinamizatzaileak azken batzarrean. Horiek horrela, azken urteotan egindako lanari jarraipena emateko helburuarekin, dinamizatzaile lanposturako lan deialdi publikoa egin dugu.

Eskertuko genizuke informazioa zabaltzen laguntzea, interesa duten pertsonen lan deialdiaren berri izan dezaten. Irailaren 30era arte bidal ditzakete beren curriculumak ostolazadeba@gmail.com helbidera.

Debako Kultur Elkartearen etorkizuna guztion artean eraikitzen jarraituko dugu.

Debako Kultur Elkarteko zuzendaritza

Palestinarrerresistentziaren alde eta Israelen eta bere konplizeen aurka, urriaren 4an Iruñera!

Sirena eta bonba hotsek esnatzen dituzte egunerokoan haurrak Palestinan, ez senideen muxuek, ezta haien laztanek ere. Bi urte jada Palestinan gerra, goseteta eta heriotza direla eguneroko ogia. Eta ondorioa: 75.000 hildako, 40.000tik gora kanporatu eta 11.000 palestinarrak kartzelaratu. Ezin jakin, ordea, honakoak datu zuzenak ote diren, sarraskiaz informatzen duten langileen eta hedabideen kontra gogor jotzen ari baita sionismoa.

Bien bitartean, gurean, Eusko Jaurlearitzak harreman zuzena du Israelgo Estatuarekin defentsa eta ziberseguratasunaren arloan eta genozidioarekin kolaborazio zuzena izan duen CAF enpresan partaidetza dauka. 2023ko urritik hona Espainiako Estatuak 12 kontratu esleitu dizkie Israelgo hainbat armagintza enpresari eta Euskal Herriko 200 enpresak baino gehiagok hornitzen dute Israelgo industria aeroespaziala.

Milaka dira oraindik Europar Batasunaren eta Israelgo Estatuaren arteko harremana sostengatzen duten kausak eta, hortaz, milaka dira mendebaldeko konplizitatea salatzen ditugun arrazoiak. Gasteizera Maccabi saskibaloi taldea etorri izanagatik kaleak hartu izanak, Espainiako Vuelteren hainbat etapa moztu izanak, Israelgo enbaxadoreak Bilbon eman behar zuen hitzaldia bertan behera geratzea lortu izanak eta EHUren konplizitatea salatzen ikasleriak unibertsitateak hartu izanak erakutsi digute, besteak beste, estatu sionistaren normalizazioa eta harreman oro eteteko ahaleginean jardun behar dugula.

Genozidioa seinalatu, palestinarrerresistentzia babestu eta mendebaldeko potentzien konplizitatea salatzen, batu Palestinarekin Elkartasunak urriaren 4an Iruñean egingo duen mobilizaziora!

Ekarpene egiteko asmoz, Itziarren *Israel hemen ere hasten da* liburuxkaren aurkezpena egingo dugu eta Debatik mobilizaziora joateko autobusa antolatuko dugu. Tiketak salgai izango dira Koska tabernan.

Kontseilu Sozialista Deba Bailara



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)





Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



ITSASO ARAMENDI

Herria haurren neurrira

Laurak puntuan. Luzaro eskolako ateak zabaldu dira eta kalea bizitzaz lehertu da: umeak korrika, etxeokak irribarrez edo mugikorrari begira, eta motxilak airean dantzan.

Haurrak aldapan behera jauzika, galtzadatik batzuk, Agirretxeko aldapatik besteak. Nagusienak txikienean eredu, lagun artean denak ogitartekoaren bila.

Haurrak kalean ibiltzea, jolas librea izatea eta bakarrik edo lagunekin mugitzea ederra da, baina kezka eragiten du, oinezko txikienean oso txiki baitira motor, auto, furgoneta, kamioi eta autobusen artean.

Gure herriak haurrekiko espazio seguru, inklusibo eta parte-hartzailea behar luke izan. Horrek esan nahi du umeen segurtasuna bermatzea, sormeneko espazioak eskaintzea eta autonomiaz mugitzeko aukerak ematea. Francesco Tonucci pentsalariak azpimarratu izan duen bezala, "herri bat umeentzat ona bada, guztiontzat da ona"; zergatik ez beraien beharrak erdigunean jarri? Gipuzkoako hainbat herritan dago, esaterako, *Eskola-bideak* programa, haurrek eskolara bakarrik joateko aukera izan dezaten sortutako egitasmoa. Umeak eskolarako bidean seguru ibiltzeko ibilbideak markatu dituzte; umeen beldurak eta kezak identifikatu, arriskuak detektatu (eskola irteeretako zebra-bideak, kasu) eta neurriak hartu dituzte; eskola bideetan ikur koloretsuak jarri eta elkargune estrategikoak sortzen lagundu dute; edota kontzientziazio kanpainak gauzatu dituzte.

Segurtasun neurriak, espazio libreak eta parte-hartze aukerak bermatzen ditugunean, kaleak denontzat bizigarriagoak eta biziagoak dira.

"Segurtasun neurriak, espazio libreak eta parte-hartze aukerak bermatzen ditugunean, kaleak denontzat bizigarriagoak eta biziagoak dira"




ekoðenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Iersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Telf.: 943 191 818



1920ko hamarkada

Mikeleteak, aguazilak eta karabineroak

Argazkiaren egilea ezezaguna da, baina jakin badakigu irudia 1920ko hamarkadakoa dela. Lersundi kalean aterata dago, Montreal hotelaren alboan, eta ziurrenik Corpus Christiren prozesioari dagokio. Bitxikeria gisa, garai hartan herrian geneuzkan hiru polizia-indar desberdinetako kideak azaltzen dira bertan: mikeleteak, aguazilak (udaltzainak) eta karabineroak.

Lehenengo planoan, ezkerrean eta bizkarrez, bi mikelete ikus ditzakegu, txapel gorria eta kapa jantzita; mikeleteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren polizia taldea ziren. Bigarren planoan, ezkerrean eta eskuinean, bi aguazil daude; biek ala biek daukate txapela, baita bastoi klasikoa ere (hura zen erabiltzen zuten “arma” bakarra). Beren atzean, berriz, herriko postuko karabineroak agertzen dira, ohiko txapelarekin eta uniforme grisarekin. Karabineroen eginkizuna kostak eta mugak zaintzea zen, baita kontrabandoaren aurka borrokatzea ere; azken Gerra Zibilaren ondoren, 1940an taldea desegin eta Guardia Zibilean sartu ziren.

Alex Turrillas Aranzeta



JON ETXANIZ

Adi(he)men artifiziala

Lizentzia lortzeko, Londresko taxi gidariek hiriko kale eta bidegurutze guztiak buruz ikasi behar dituzte eta bertako kaleetatik maparik gabe gidatzeko gaitasuna erakutsi behar dute.

Ikerketa batean erresonantzia magnetiko bidez ikusi zuten zenbat eta denbora gehiago gidatu, orduan eta handiagoa zela beren garuneko hipokanpoaren tamaina. Agian esanguratsuagoa da jakitea jubilatutako ostean tamaina hori "normaltasunera" itzultzen zela.

Harrigarria da zein abiaduratan galdu dezakegun gaitasun bat, erabiltzeari utziz gero. Industria eta teknologia iraultzek, bizitza askoz erosuagoa egin diguten heinean, alfertu eta gaixotu egin gaituztela agerikoa da. Orain aldaketa handi baten atarian gaude. Adimen artifizialaren aroa bertan da eta ikusteko dago gizartean eta gizabanakoetan izango duen eragina. Hala ere, gure garuna alfertu eta txikitzerik ez badugu nahi, inoiz baino garrantzitsuagoa izango da etengabe gauza berriak ikasten eta jakin-minak asetzen egotea. Badaezpada ez gaitezen ahaztu gudan hain positiboki eragiten duten sormenaz, pentsamendu kritikoaz, pertsonarteko harremanak garatzeaz, hauek zuzenean eragiten baitute gure garunean.

Jorge Drexler abeslari uruguaitarrak dioen bezala, "gauza bera kantuak, txoriak, alfabetoak. Zerbait hiltzea nahi baduzu, utzi geldi". Alegia: *"Lo mismo las canciones, los pájaros, los alfabetos. Si quieres que algo se muera: déjalo quieto"*.

"Harrigarria da zein abiaduratan galdu dezakegun gaitasun bat, erabiltzeari utziz gero"

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia & Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com

Deba ez da inklusiboa izango Udalak ez baditu immigranteak erroldatzen

JOSE LUIS ALBIZU



Donostiako Udalaren esanetan, erroldatze soziala ematean "pertsona bat bere benetako bizilekua ez den beste leku batean erroldatzen da. Hau da, Udalak badaki pertsona bera dela eta hirian bizi dela, baina ezin da bizi den lekuan erroldatu, hainbat arrazoi direla medio".

Lehen, indarkeriaren biktima ziren emakumeen edo etxerik gabeko pertsonen kasuan erabiltzen zen errolda soziala udal batzuetan. Baina, orain, Eudel Euskadiko Udalen Elkarrekin kontzeptu hori zabaldu eta egoera berezietan erroldatzeko irizpide komunak onartu ditu; eskubide hori ukatzen zaien pertsona guztiei erroldatze soziala ezartzea gomendatu die udalei.

Udalerrri batzuetan, erroldatze soziala batez ere pertsona migratzaileei zuzenduta dago, haiei eragiten baitie gehien errealtate horrek, eta funtsezkoa da haien egoera erregularizatzeko eta oinarritzko eskubideak eskuratu ahal izateko, hala nola osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak.

Zergatik da beharrezkoa erroldatzea?

Errolda ez da paper bat bakarrik, eskubide askotarako sarbide baizik.

Erroldarik gabe zaildu edo ezinezko bihurtzen dira, adibidez:

- Osasunerako sarbidea (osasun-txartela).
- Adingabeen oinarritzko hezkuntzarako sarbidea (ikas-tetxea esleitzea), baita prestakuntza ofizialetarako eta Lanbideren ikastaroetarako sarbidea ere.
- Oinarritzko gizarte-prestazioak eskuratzea.
- Egoitza-baimena lortzea atzerriartasunari buruzko

"Errolda zenbaki bakoitzaren atzean bizitza bat dago, familia bat, etorkizuneko proiektu bat"

legeak eskatzen duen urteen ondoren, eta irregulartasun administratiboarekin amaitzea...

Zergatik ezin dira erroldatu pertsona asko?

Badakigu pertsona askorentzat zaila edo ezinezkoa ere badela errolda lortzea:

- Elkartasunagatik, ahaidetasunagatik edo adiskidetasunagatik etxebizitza batean bizi diren pertsonak ez dira bertan erroldatzen eta errolda beste etxe batean "ordaindu" behar izaten dute.
- Zaintzan eta etxeko lanetan barne-erregimenean lan egiten duten eta etxean bizi diren pertsonen erroldatzeko eskubidea ukatzen diete enplegatzaileek.
- DSBEa jasotzen ari den pertsona batekin bizi diren herritarrak ez dira erroldatzen, etxe berean beste norbait erroldatuz gero DSBE hartzailearen diru-sarrerak murriztuko diren beldur direlako.
- Alokairuan bizi diren pertsona batzuei erroldatzea galarazten die jabeak, edozein arrazoi dela medio.
- Pasaportea indarrean ez dutenak ezin dira erroldatu...

Errolda zenbaki bakoitzaren atzean bizitza bat dago, familia bat, etorkizuneko proiektu bat. Zure bizilaguna naiz, baina erroldarik gabe ez naiz existitzen!



MARI SEARA

Talentua eta fundamentua

Iritsi da iraila eta hasi gara ikasturteari aurre egiteko prestakizunekin. Eta hasiera honi kolore pixka bat emateko Animadebaz gozatzeko aukera ere izan dugu. Animazioaz gozatzeko aukera eskaintzeaz gain, Animadeban bestelako ekintza ugari ere antolatzen dituzte herrian: kontzertuak, hitzaldiak, aurkezpenak, zuzeneko podcastak, merkatua... Eta benetan azpimarragarria iruditzen zait herritarrek ekintza hauek guztiak aurrera eramateko egiten duten lana. Pertsona ugarik parte hartu dute ekitaldi horien bueltan, oholtza gainean, salmentan, zaintzan eta bestelako lan batzuetan.

Beti pentsatu izan dut Deban badaudela talentua eta fundamentua. Zero kilometro anitza eta aberatsa da gurea: Begiradak, Iturrian Korua, kaleko kontzertu desberdinak, Baso Bete Zientzia, Galerna Festa, Jazzez Blai, Fokupean, Antzerki Astea, Gure Giro eta abar. Ezin dugu esan kulturalki aberatsak ez garenik. Badago gogoa eta ilusioa gustatzen zaigun horri ekiteko, eta ekimen horiek aurrera eramateko bideak aurkitzen saiatzen gara nola edo hala.

Udako gau luzeetan eta egun eguzkitsuetan eta beroetan, herriko edozein txoko izan daiteke emanaldi hauentzako egokia. Eta euria eginez gero, hor dago zumardiko karpa, alternatiba gisa. Baina udazken-negu luzea datorrenean, gauzak konplikatzen dira eta ez dago ekitaldi desberdinak egiteko aukera askorik: Kultur Elkarteak, Ispiluen gela eta frontoia bihurtzen dira agertoki.

Gure talentuak azalerazteko fundamentuzko areto bat izango bagenu, nola irudikatuko zenukete gure herriko kultur eskaintza?

"Udazken-negu luzea datorrenean, gauzak konplikatzen dira eta ez dago ekitaldi desberdinak egiteko aukera askorik"

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com

Debatek
INFORMATIKA

Aholkularitza
Produktuen salmenta
Zerbitzu teknikoak

747 42 39 01
Debatek_

ONDARGAIN
TXIRINGITUA

Gosariak, plater konbinatuak,
pizzak, hanburbesak eta
zuzeneko musika!

Urtero bezala, iraileko azken asteburuan izango da Euskal Jaia Deban



Aurtengoan ere, iraileko azken asteburuan ospatuko dute Euskal Jaia Deban. Larunbatean, hilaren 27an, izango da egun handia, baina bezperan hasiko dira ospakizunaren bueltan antolatutako ekintzak. Izan ere, Kanean Kantuz taldeko kideek ostiral iluntzean eskainiko duten kantaldiarekin abiatuko da egitaraua.

Biharamunerako, berriz, goizetik gauera arteko programazioa prestatu dute: talo postuaz gain, txistularien, Zubietako joaldunen, trikitilarien eta dantzarien kalejirak eta emanaldiak izango dira goiz eta eguerdi partean. Arratsaldean, aldiz, buruhandiak ibiliko dira kalez kale, baita Debrass Band taldea ere. Eta musika izango da protagonista gauean ere, Obaneuke taldearen erromeriarekin (Foruen Plazan).

Berrikuntzei dagokienean, bestalde, Debako Udalak jakinarazi du aurten ez dela marmitako lehiaketarik egingo, baina goizean Plaza Zaharrean sagardoa doan edateko aukera egongo dela iragarri du.

Bazkari herrikoia

Herri bazkaria ere ez da faltako. Aurreko urteotako dinamikari eutsiz, Aldats pilotalekuan izango da, 15:00etan, Zuhatza Euskara Elkartearen ekimenez.

600 laguntetzako tokia egongo da bazkarian eta 09:30etik aurrera erreserbatu beharko da lekua (paela janerako txartela izan ala ez). "Aulkiak eta mahaiak jartzen lagundu ondoren egin ahal izango da erreserba".



Urrian irekiko dute Mintzalaguna egitasmoan izena emateko epea

Mintzalaguna programak euskaraz hitz egiteko aukera ematen die beren euskara maila hobetu nahi dutenei, euskaraz ondo moldatzen diren herritarrekin harremanetan jarrita. Astean behin biltzen dira, ordubetez, euskaraz hitz egiteko. Zuhatza elkarteak kudeatzen du ekimena Deban —doakoa da—, Taupa Euskaltzaleen Mugimenduarekin elkarlanean, eta izen-ematea urrian zabalduko dutela jakinarazi du. Parte hartzeko interesa dutenek 943 19 13 83 telefono zenbakira deitu dezakete.



Egun osoko egitarauarekin ospatu dute Kolore Anitz Eguna

Ikasturte hasierarekin batera ospatu da, beste urte batez, Kolore Anitz Eguna. Egitarauari 11:00etan eman zioten hasiera, Lehen Hezkuntzako haurrentzat Kultur Elkartean eta Gaztelekuan antolatutako ihes-gelekin, eta Simon Berasaluze plazan txokoak eta jolasak prestatu zituzten. Gau partean, aldiz, musika izan zen protagonista; Xaribari taldearen kontzertua izan zen Gaztetxean, eta ondoren Txola ta Potxola aritu ziren musika jartzen.

Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldeko kideek eskerrak eman dizkiete festan parte hartu zuten guztiei.

Arimen Gaua ospatzeko ekintza sorta iragarri dute datozen asteotarako



Iaz egin zuten estreinakoz, eta aurten bigarrenaz antolatu dute Arimen Gaua Deban ospatzeko egitarau bateratua. Ekainean ekin zieten pres-taketa lanei, Kultur Elkartean egin zuten batzar irekiaren ondoren, eta irailean aurkeztu berri dute aurten antolatutako programazioa.

Talde eragileko kideek nabarmendu bezala, "iaz harrera beroa izan zuen elkarlanean, herrian eta herriarentzat antolatu genuen egitarau zabalak eta pozik gaude gure lanak emandako fruituarekin. Aurtengoan ere, ildo beretik jarraituz eta hobetzeko bidean aldaketa txiki batzuk

eginez, Arimen Gaua ospatzera goaz; hilerritik irten eta kalabazek argitzen diguten bidea jarraituko dugu".

Bada, urriaren 8an abiatu eta azaroaren 2an amaituko dira ospakizunaren baitan prestatu dituzten ekintzak —ekimen nagusia urriaren 31n egingo dute—. "Euskara, komunitatea, parte-hartzea, natura, berdintasuna, aniztasuna eta izaera" bezalako baloreak oinarri hartuta, adin ezberdineko herritarrei zuzendutako jarduerak antolatu dituzte; besteak beste, hitzaldiak, ipuin kontaketa saio berezia, eskulan tailerrak, film emanaldia edota Death Cafe saioa izango dira aukeran.

Festara batzeko eta jardueretan parte hartzeko deia egin dute sustatzaileek.



EGITARAUA:

URRIAK 8 (ASTEAZKENA)

HITZALDIA:

"GURE AITONA-AMONEK HALLOWEEN OSPATZEN ZUTEN"

18:30 Kultur Elkartea. Hizlaria: Oier Araolaza dantzaria eta antropologoa (Dantzan elkarteko kidea).

URRIAK 12 (IGANDEA)

IPUIN KONTAKETA

17:30 Ispiluen gela. Debako Kontalarien eskutik.

URRIAK 16 (OSTEGUNA)

HITZALDIA:

"HERIOTZARI BEGIRADA BAT DOLUAREN AKONPAINAMENDUTIK"

18:30 Kultur Elkartea. Hizlaria: Manex Beristain barreterapeuta eta heriotzaren pedagogian aritua.

URRIAK 23 (OSTEGUNA)

ESKULAN TAILERRA

18:00 Kultur Elkarteko liburutegia.

URRIAK 25 (LARUNBATA)

TXAPA SALMENTA ETA KALABAZA APUSTUA

13:00-15:00 Foruen Plaza.

URRIAK 28 (ASTEARTEA)

ESKULAN TAILERRA

18:00 Kultur Elkarteko liburutegia.

URRIAK 29 (ASTEAZKENA)

ZINEMA: "NAPARDEATH"

19:00 Kultur Elkartea.

URRIAK 30 (OSTEGUNA)

ARIMEN SUKALDEA

17:00 Gaztelekua.

DEATH CAFE SAIOA

18:00 Heriotzaz hitz egiteko espazio segurua. Kultur Elkarteko liburutegia.

URRIAK 31 (OSTIRALA)

ARIMEN GAUA

Herriko eragileen eta norbanakoen artean antolatutako **ekimen berezia**.

AZAROAK 1-2

BELDURRAREN ETXEA

11:00 Gaztelekua.

Maria Trigoren 'It shouldn't rain tomorrow' filmak irabazi du Animadebako sari nagusia



Aurtengo sarituak antolakuntzako kideekin batera. ANIMADEBA

Lau egunez herria nazioarteko animaziozko zinemaren topagune bihurtu ondoren, irailaren 6an eman zioten amaiera Animadeba jaialdiari. Antolatzaileen esanetan, aurtengoa are bereziagoa izan da, hitzordua antolatu duten hemezortzigarren aldia izan baita.

Irailaren 3tik 6ra bitartean herrira gerturatu ziren ikus-entzuleek egitarau zabalaz gozatzeko aukera izan zuten —ez ziren falta izan, adibidez, proiektzioak, taillerak, kontzertuak edota ikuskizunak—. Eta ikusmina piztu zuen, beste urte batez, jaialdiaren itxiera egunean Kutxa Zurian egin zuten sari banaketa ekitaldiak berak ere; Ezepez, Putas Amak eta DJ Feten taldeen kontzertuaren aurretik izan zen hitzordua.

Bertan, Sail Ofizialeko sari nagusia Maria Trigoren *It shouldn't rain tomorrow* filmak eraman zuen. Epaimahaiaren hitzetan, zuzendariak ikuslea bizitzaren azken etapan murgiltzen du "pintzelkada sotil finez" eta "soinu zein irudi bidezko elementu minimoekin".

Sail berean, Farnoosh Abedi-ren, Negah Khzre Fardyardad-en eta Mohammad Ghaffari-ren *Holy Heaviness* filmari aipamen berezia eskaini zioten. "Aitahaurtxo zaharraren metaforaren bidez erakutsitako samurtasun izugarriak hunkitu egin gaitu eta gupida piztu digu", azpimarratu zuen epaimahaiak.

Gidoiaren alorreko aipamen berezia, berriz, Anna Solanasen eta Marci Ribaren *Mater Benefacta* lanarentzat izan zen. "Garbia eta tramankulurik gabekoa den gidoiarekin, eliza katolikoak haurrak lapurtu eta



Begoña Vicario EITB galan saria jasotzen. ANIMADEBA

saltzean egindako basakeriaren salaketa egin da", nabarmendu zuten.

Migrazioaren gaia agerian

Vinnie Ann Bose izan zen gaudiko garaileetako beste bat. Haren *Sulaimani* filmak Gidoi Onenaren saria eskuratu zuen. Migrazioaren testuinguruan "identitatearen eta integrazioaren arteko tentsioa" erakusteko modua eskertu zuten epaimahakideek. Publikoaren saria, ordea, Evgeniy Golovin-en eta Alexander Afonasyev-en *Out there* lanarentzat izan zen.

Beste hainbat sari ere banatu zituzten. Libe Amas Morenoren *Ikasle prekario baten amets frustratuak*-ek euskarazko lan onenaren Berria Saria lortu zuen eta Zuzendari Berriak sailean Nan Tung Lin-en *The Peel* nagusitu zuen. Calleen Koh-ren *My Wonderful Life*-ek jaso zuen Zuzendari Berriak Saileko aipamen berezia.

Bestelako aitortzak

Bestalde, Animadebak animazioaren munduan maisutzat daukaten Michael Dudok de Wit zinemagileari eman dio aurtun Ohorezko Saria.

Jaialdiaren baitan, Begoña Vicario zinemagileak ere omenaldia jaso zuen, "bere ibilbide oparoa eta animazioaren alde egindako lana aitortuz". Irailaren 5eko EITB galan saritu zuten eta bizkaitarraren hainbat lan proiektatu zituzten bertan, bere ibilbide esperimental eta aitzindaria gogora ekarriz.

“18 urteko ibilbidea betetzea benetan hunkigarria da guretzat”

AITOR OÑEDERRA • Animadeba jaialdiaren zuzendaria

Urteak hegan joan dira eta bat-batean Animadebaren 18. edizioa iritsi gara. Festibala heldu bilakatu da eta 18 urteko ibilbidea betetzea benetan hunkigarria da guretzat.

Festibalaren lehen urteak *mos-tra* moduan antolatu ziren: animazioaren mundura hurbiltzeko lehen pausoak xumeak izan ziren, baina ilusioz beteak. 2019an, ordea, jauzi handia eman genuen: nazioarteko film laburren lehiaketa sortu genuen eta horrek Animadebaren izaera erabat sendotu zuen.

Ez da bide erraza izan. Hala ere, gure jaialdia ezinbesteko hitzordu bihurtu da, animazioaren nazioarteko panoraman bere tokia hartuz eta Deba mapa kulturalan kokatuz.

Bidean festibal asko desagertu dira edo desagertzeaz daude, baina gureak, zorionez, bizirik dirau. Ez da ahaztu behar bizi dugun testuingurua: VOD plataformen garaian, ez da erraza publikoa zinema aretoetara erakartzea, eta are gutxiago karpa

batean antolatutako animaziozko emanaldietara etorraztea. Horregatik, Debako herritarrek eskertu nahi ditugu: haien babesari esker mantentzen da jaialdia eta haien laguntza da gure lanaren oinarria.

Parte-hartze handiagoa

Urtez urte, gero eta film labur gehiago jasotzen ditugu. Batzuk Annecy bezalako jaialdi garrantzitsuetan aurkeztuak izan dira. Halako lanak gure programazioan izatea ohore handia da; Sitges edo Zinebi bezalako festibal handien aurretik estreinatzea aukera paregabea da eta harrotasun iturri bihurtzen da.

Aurten, lehen aldiz, Oscar sari-dun bat ere izan dugu gure artean: Michael Dudok de Wit. Haren presentziak dimentsio berezia eman dio festibalari, baina hori mugarri handia izan bada ere, gurean izan ditugun beste zinemagile handiak ere ezin ditugu ahaztu. Festibalak, gainera, nazioarteko gonbidatu be-

reziak izan ditu urtez urte, hala nola Animest, Interfilm Festival eta Animamateka. Aliantza horiek funtsezkoak dira gure proiektua indartzeko eta aukera paregabea eskaintzen digute gure mugetatik harago Animadebaren izena zabaltzeko.

Heldutasunera iritsita, Animadeba animazioaren industriaren merkatu gisa irudikatzen dugu etorkizunean. Amets handia litzateke nazioarteko eredu arrakastatsuetan oinarritutako profesionalentzako merkatu bat antolatzea, baina gure neurrian.

Ezin dugu artikulua hau eskerrak eman gabe amaitu. Urtez urte gure ondoan egon diren guztiei zor diegu jaialdia aurrera ateratzea. Eskerrak Debako Udaleko kide guztiei ere, sorreratik erakutsi duten konfiantza eta babeseratik. Era berean, ezin aipatu gabe utzi EITBk egiten duen zuzeneko emisioa. Hedapen horri esker, Animadebaren edukiak Debako karpatik harago heltzen dira.



Jon Lafuente fisikari debarrak Volker Heine saria jaso du Suitzan

Ikertzaile ibilbidearen hastapenetan dauden zientzialariei zuzendutako Volker Heine saria irabazi du debarrak. Teoria bakar batean ioien eta elektroien arteko elkarrekintza deskribatzeko gai izan da eta horregatik lortu du, hain zuzen ere, aintzatespena. Sariari esker, bere ikerketan sakontzeko aukera gehiago izango dituela uste du.

Jon Lafuentek Psi-k erakundeak lau urtean behin banatzen dituen Volker Heine sarietako bat eskuratu du; zehazki, ikertzaile ibilbidearen hastapenetan dauden zientzialariei egiten zaien aitortpena jaso du (Early Career Investigator Award). Sariak banatzeko ekitaldia abuztuaren 28an izan zen, Lausanan (Suitza) egindako VHECI sinposioaren baitan, eta 1.500 euroko ordainaz ere saritu zuten fisikako doktore eta ikertzaile debarra.

Beste lau finalistekin aritu zen lehian; nazioarteko unibertsitate entzutetsuetako ikertzaileak guztiak ere. "Oso pozik nago. Egia esan, ez nuen espero irabazterik. Finalista izate hutsak ere poztu ninduen; izan ere, VHECI sinposioan nire lana aurkezteko eta bertan nire alorreko beste ikerlari eta zientzialari batzuk ezagutzeko sekulako aukera bainuen".

Metodo konputazionalen espezializatutako fisikari teorikoa da Lafuente eta saria "garrantzitsua" dela aitortu du. Bere esanetan, "ziurrenik, une honetan gure eremuan prestigiorik handiena duten aintzatespenen artean dago hau". Testuinguru horretan, errekonozimenduak etorkizunean ate ugari irekiko dizkiolakoan dago. "Halako sariak etorkizunean proiektuak eta bekak eskuratzen laguntzen dute, norbere lana kalitatezko zigilu batekin aurkezteko aukera ematen dutelako".

Teoria berritzailea

Bere ikerketan sakonduz, Lafuentek Texasen egin zuen doktoretza ondoko egonaldian garatu zuen lanari



dagokio aitortza. Materialak eskala atomikoan nola funtzionatzaren ikertzen aritzen da eta, laburbildu duenez, ioien eta elektroien arteko elkarrekintza teoria bakar baten bidez deskribatzea lortu du, orain arte bereizita zeuden bi ikuspegi uztartuz. "Historikoki, elkarrekintza hori bi limitetan soilik ulertzen zen: elkarrekintza ahula eta elkarrekintza bortitza. Baina garatu dudan teoriarekin, lehen bananduta ulertzen ziren bi egoerak formalismo bakarrean elkartu ditut. Ez hori bakarrik, bien arteko tarteko egoerak ere deskribatzeko gai izan bainaiz teoria berri honi esker. Horixe da nire lanaren berrikuntza nagusia eta horregatik saritu naute", laburbildu du.

Gaur egun EHUko Bizkaiko campuseko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Fisika Sailean ari da lanean, bere teoria aplikatzen eta fintzen. Eta, bere iritziz, sariari esker ikerketan sakontzeko aukera gehiago izango ditu. "Teoria aplikatu eta elektroioi-elkarrekintzak materialetan duen eragina sakonago aztertzea da nire plana. Hori lortzeko, ordea, baliabideak behar dira eta, zentzu horretan, sariak berme handiagoak emango dizkit".

Irailaren 5ean ireki zuten Itziarko eskola berria, ikasturte hasierarekin batera

Eskola komunitateak urte luzez egindako eskaerari erantzunez, ikastetxe berria zabaldu dute Kontzeju Etxean. Espazio berriari esker, ikasleek Itziarren amaitu ahal izango dute Lehen Hezkuntza osoa, Debara edo beste nonbaitera joan beharrik gabe. Eraikina bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiko dute irailaren 27an.



Irailaren 5ean ekin zioten 2025-2026 ikasturtari EAE-ko ikastetxe gehienetan eta egun berean estreinatu zuten Lehen Hezkuntzako 48 haur (eta bederatzi irakasle) hartu dituen eskola berria Itziarren. Ez zuten inaugurazio ekitaldirik egin, baina Maider Elustondo zentroko arduradunak eraikineko giltzak jaso zituenean ireki zuten 358,96 metro karratuko azalera erabilgarria duen espazioa.

Luzaro HLHI ikastetxe publikoak Itziarren zabaldu duen eskolan bertan izan zen Arantza Egaña auzo alkaatea ere eta, gogorarazi zuenez, eskola komunitateak urte luzez egindako eskaerari erantzuten dio espazio berriak.

Testuinguru horretan, Elustondok zehaztu zuen ikasleek Lehen Hezkuntzako ziklo osoa Itziarren ikasi ahal izango dutela aurrerantzean, Debara edo beste nonbaitera joan beharrik gabe. "Espazio berri honek orain arte Apaizetxean ematen zen zerbitzua ordezkatuko du. Sasoi batean, lehen eta bigarren maila bakarrik eskaintzen ziren, baina guraso elkartearen eta auzo udalaren eskaerak aintzat hartuta, lortu da urtez urte beste maila bat gehitzen joatea; aurtengo lehen aldiz, seigarren maila

hemen egiteko aukera izango dugu. Horrek esan nahi du hemendik aurrera Haur eta Lehen Hezkuntza osorik ikasi ahal izango direla Itziarren bertan", adierazi zuen.

Lizarbe guraso elkarteko kideak ere pozik azaldu dira plazako eraikin berria errealitate bihurtu dela ikusita. "Eraikuntza honek aukera emango digu gure seme-alabak LH6. mailara arte Itziarren gelditzeko eta hori oso garrantzitsua da guretzat", aipatu du Ihintza Irizarrek.

Erronkaz beteriko urtea

Auzo alkateak gaineratu bezala, hurrengo pausoa Eskola Txikien Sarean sartzea izango da. "Hau trantsizio urtea izango da, baina helburua datorren ikasturterako gure eskola sare horren parte izatea da". Zentzu horretan, guraso elkartetik eskola propioa izateko erronkari heltzeko prest daudela azpimarratu du Irizarrek. "Azken 18 urteotako esfortzuarekin eta izerdiarekin lortutako proiektua da, umeei beren inguruarekin bat datorren errealitatearekin lotutako hezkuntza jasoko dute eta".

Ate irekien saioa egingo dute irailaren 27an, 11:00etatik 13:00etara, herritarrek eraikina ezagutu dezaten.

“Euskal baleazaleen historiari jarraika egin dugu kontzertuen ibilbidea eta horrek beste zentzu bat eman dio bidaiari”

ALE ETA ITZIAR IRIZAR • Kalekantoi taldeko kideak



"Gure instrumentuak hartu eta duela urte asko Islandian zehar euskal baleazaleak ibili ziren txokoetan euskal musika zabaltzen aritu den familia gaituzue". Hitz horiekin aurkeztu du Kalekantoi taldeak bere burua, familiako zortzi kidek abuztuan egin duten bidaiaren berri ematean. Islandian egon dira eta, besteak beste, bost kontzertu eman dituzte bertan. Esperientzia "izugarria" izan dela diote Ale eta Itziar Irizar aita-alabek.

Aski ezagunak ziren lehendik ere Itziarren eta inguruotan, eta are ezagunago bihurtu dira orain egin berri duten bidaiaren harira. Zortzi kide ditu Kalekantoiak: "Gurasoek (Ale eta Itziar), alabek (Itziar, Ihintza eta Irati), alaben bikoteek (Mikel eta Imanol) eta Lili alaba/iloba/bilobak osatu dugu taldea", zehaztu dute. "Musika tresnak aita (dultzaina, adarra, ahoko soinua eta whistle-a) eta alabok jo ditugu (Itziarrek trikitixa eta alboka, Ihintzak panderoa eta Iratik biolina) eta Imanol izan da emandietan aurkezpenak egin eta azalpenak eman dituen". Islandian bizitakoa "asimilatzen" ari dira oraindik ere.

Nolatan bururatu zitzaizuen familiak Islandiara bidai egitea? Zergatik Islandia?

Ale Irizar (A.I.): 2014an Alemaniara eta Austriara egin genuen bidaiaren kalean aritu ginen musika jotzen. Oso esperientzia aberasgarria izan zen, berezia, eta errepikatzeke gogoia genuen. 2023an Irati eta Imanol Islandian izan ziren; Imanolek aurrez sei urte egin zituen bertan, tarte luze batez Djupavikeko hotelean egin zuen lan eta bertan Euskal Zentroa inauguratu berri dute.

Itziar Irizar (I.I.): Islandia eta Euskal Herria lotzen dituen jarduera nagusia baleen ehiza izan da eta oso interesgarria iruditu zitzaigun inguru horiek bisitatzeko eta gure kultura edo ezagutza bertakoe-kin partekatzea.

Abuztuan izan zarete bertan. Zenbat eguneko bidai egin duzue?

A.I.: Ia hiru aste egin ditugu Islandian. Ipar-mendebaldeko fiordoetan izan gara batik bat, inguru horietara joaten zirelako euskal baleazaleak. Baina Reykjavik eta hego-ekialdeko glaziarrak ere bisitatu ditugu.

Egonak zineten aurrez Islandian? Nolako da?

I.I.: Imanol sei urtez bizi izan zen bertan eta Iratik duela bi urte bi asteko egonaldia egin zuen Imanolekin batera. Aita ere egon zen laneko bidai batengatik, baina gainontzekoontzat lehen aldia izan da.

A.I.: Oso berezia da, iparralde batez ere. Hegoalde turistikoagoa da eta glaziarrak ikusgarriak dira. Baina iparraldeko lasaitasuna, zuhaitzik gabeko eta belar boleztetako larreak, mendi altu eta ur-jauzi ilara amaigabeak, ia trafikorik gabeko bide luzeak... benetan ikusgarria da.



Ba al dute antzekotasunik islandiarrek euskaldunekin?

I.I.: Zentzu batean kontrastea handia da, baina antzekotasunak ere baditugula esango nuke. Kontrastea dago bizimoduan (beste erritmo batean bizi dira), paisaian, dituzten baloreetan (errespetua, interesa...), baina antzekotasunen bat edo beste badugu; islandiera eta euskara, adibidez, biak dira hizkuntza gutxituak eta ulergaitzak. Zentzu horretan gurekin oso identifikatuta sentitzen dira.

Euskal baleazaleek harreman estua izan zuten Islandiarekin iraganean. Mendebaldeko fiordoetara joaten hasi ziren baleak ehizatza, gutxienez XVI. mendetik, eta 1615. urtean 32 arrantzale euskaldun hil zituzten bertan. Txoko haietan ibili zarete zuek. Geratzen al da euskal baleazaleen aztarnarik han?

A.I.: Bai, hori da. IX. mendetik XVI. mendera bitarte euskaldunek balearen olioaren monopolioa izan zuten, balea handiak harrapatzeke gaitasuna zuten bakarrak zirelako. Eta Ternuan baleak gutxitu zirenean Europa iparraldera jo zuten askok. XVII. mende hasieran euskal baleazaleak Islandiako mendebaldeko fiordoetan aritu ziren baleak ehizatzen, eta 1615eko irai-

“Oso interesgarria iruditu zitzaigun inguru horiek bisitatzea eta gure kultura edo ezagutza bertakoekin partekatzea”

laren 21ean 32 euskal baleazale erail zituzten. Horixe da Djupavikeko Euskal Zentroan jaso dutena, baita 1615eko gertakaria ere. Albaola Itsas Kultur Faktoria-ko kideekin batera traineru bat eraikitzen ere ari dira.

I.I.: Aztarna fisikorik ikusteko moduan akaso ez, baina lekuak bai, noski, eta bertako jendeak badaki zein den garai hartako historia, oso presente gaude lauzpabost mende pasa diren arren. Djupavikeko hoteleko semeak esan zigun bertako fiordoan pare bat itsasontzi hondoratuta daudela eta hori ikertu nahi dutela; beraz, agian laster izango da ikusteko moduko aztarnaren bat.



“Bertako jendeak badaki zein den garai hartako historia, oso presente gaude lauzpabost mende pasa diren arren”

“Guztira bost emanaldi izan dira, lau ipar-mendebaldeko fiordoetan egin ditugu eta bosgarrena Reykjavikeko udaletxeko aretoan”

Bi herri on itsas kultur-ondarea berreskuratzeko helburuz, Strandir eskualdeko Djupavik herrian Euskal Zentroa zabaldu berri dute irailaren 20an eta Albao-larekin elkarlanean dihardute. Proiektua ezagutzeko aukerarik izan duzue?

I.I.: Bai, ezagutu dugu. Udan oraindik ofizialki inaguraturata ez zegoen arren, ateak irekita izan dituzte eta ondoan duen lantegi zaharra ere —garai batean olio egiten zuten berdelaren eta sardinzarraren koipea prozesatuta— ikusi ahal izan dugu, bertako hoteleko jabeek erakutsi digute, guretzat hango familia dira eta.

Zuena ez da bidaia turistiko soil bat izan. Euskal baleazaleen historian sakontzeko aukera izateaz gain, emanaldi ezberdinak egin dituzue bertan, euskal kultura ezagutaraziz; musika, tarte dantzak ere... Zer moduzko esperientzia izan da? Gustura ibili zarete emanaldietan?

I.I.: Esperientzia izugarria izan da, zentzu askotan. Euskal baleazaleen historiari jarraika egin dugu gure kontzertuen ibilbidea eta horrek beste zentzu bat eman dio bidaiari. Gerturatzen zirenek bazekiten zertara zihoazen eta beraietako asko harrituta gelditzen ziren egiten genuenarekin, euskal musikaz gain dantza ere ezagutu ahal izan dute, eta Imanolek azalpenak ematen zituen egiten ari ginenak zentzua izan zezan.

A.I.: Horrez gain, Reykjavikeko liburutegi nazionala eta artxiboa ere bisitatu ahal izan ditugu eta XVII. mendeko islandiera-euskara glosarioa ikusteko aukera ere izan dugu.

Zer nolako lekuetan egin dituzue emanaldiak? Eta nolako harrera izan dute?

A.I.: Guztira bost emanaldi izan dira, lau ipar-mendebaldeko fiordoetan egin ditugu —Djupavikeko lantegi zaharrean, Isaffjördurreko kultur etxeko aretoan, Ögur-eko kafetegian, Þingeyri-ko antzestoki txiki batean— eta bosgarrena Reykjavikeko udaletxeko aretoan. Emanaldi bakoitza ezberdina izan da eta oso harrera ona izan dute. Bertaratu den jendeak sekulako interesa eta esker ona adierazi digu, gurekin hitz egin nahi izan dute, instrumentuak probatu, euren istorioak partekatu... Oso aberasgarria eta berezia izan da.

Erraza izan al da saio horiek aurrez lotzea? Norbaitek lagundu al dizue?

I.I.: Hasieran uste genuena baino saio gehiago egin ditugu azkenean. Batetik, Imanol duela urte batzuk Islandian bizi izanak asko lagundu digu emanaldiak lotzeko garaian, eta, bestetik, Euskaldunen eta Islandiarren adiskideen elkarteko arduraduna (Olafur) ere gertu-gertu izan dugu. Reykjaviken bertako urteko



egunik garrantzitsuenean udaletxean jotzeko aukera izan genuen, pentsa!

Jendea ezagutzeko eta harremanak sortzeko aukerarik izan al duzue bidaian?

A.I.: Bai, Djupavik hoteleko familiarekin harremanak estutzeko balio izan digu, baita bertako jendea ezagutzeko edota Olafur eta Zuhaitz —Islandian 12 urtez bizi den itsasoarra— bezalako pertsona interesgarriekin egoteko ere.

Zer zioten islandiarrek? Ba al zuten euskaldunon historiaren edo kulturaren berri?

I.I.: Bai, ipar-mendebaldeko fiordoetan bazuten euskaldunon berri, inguru horietan baikara ezagunenak. Eskoletan Historiako ikasgaian ikasten omen dute euskal baleazaleen ibilerak zeintzuk izan ziren. Euskal musika eta dantza oro har ez dute ezagutzen eta bitxia egin zaie, berezia eta ezberdina, noski.

Zer sentsazioarekin itzuli zarete Islandiatik?

A.I.: Oso sentsazio onarekin itzuli gara, bete-bete eginda. Emanaldiak, bisitatu ditugun lekuak, ezagutu dugun jendea... oraindik asimilatzen ari gara. Gure artean oso ondo moldatu gara eta bidaian ez dugu ezustekorik izan; beraz, bidaia borobila izan dela esango nuke.

Lehen aipatu bezala, aurrez ere bidaiatu izan duzue elkarrekin. Alemanian eta Austrian izan zineten, adi-

“Oso sentsazio onarekin itzuli gara, bete-bete eginda. Emanaldiak, bisitatu ditugun lekuak, ezagutu dugun jendea... oraindik asimilatzen ari gara”

bidez, 2014an eta han ere emanaldiak eskaini zenuztuzten. Zentzu horretan, antzeko bidaia izan al da aurtengoa?

I.I.: 2014an Alemaniara eta Austriara egin genuen bidaia inprobisatuagoa izan zen. Momentuan erabakitzen genuen noiz eta non jo, eta emanaldi guztiak kalean izan ziren, hiri edo herri handiagoetan. Bidaia hartako anekdotak ere oso politikak dira eta jende interesgarria ezagutu genuen, baina oso ezberdina izan zen, bai joateko arrazoa, eta bai bertako jendearekin egindako harremana ere.

Kalekantoiren berri izango al dugu aurrerantzean ere? Hurrengo batean, gehiago?

A.I.: Momentuz ez dugu beste helmugarik zehaztu, baina auskalo! Nork daki!

Abian dira Iberdrolaren transformadorea lekuz aldatzeko lanak



Abian dira jada Gudarien Plazako transformadorea lur azpitik ateratzeko lanak. Debako Udalaren esanetan, "herritarrek 30 urte luzez izan duten arazo bati irtenbidea ematea lortu da hala: marea biziak gertatzen ziren bakoitzean 580 pertsona abonatu baino gehiagok jasaten zituzten argi-mozketei amaiera emanez, alegia".

Beharrezko izapide administratiboak egin eta baimen guztiak eskuratu ondoren, konpainia elektrikoak irailaren 9an ekin zien lurpeko transformadorea atera eta hura geltoki zaharrean birkokatzea ahalbidetuko duten lanei. Udalaren hitzetan, "esku-hartze hori estrategikoa da Debarentzat eta udalak gogor egin du lan jarduketari hori errealitate bihurtzeko prozesua gidatuz".

Zentzu horretan, Alazne Txurruka alkateak azpimarratu du proiektuak "funtsezko hobekuntza" dakarrela herrian hornidura elektriko seguru eta egonkorra bermatzeko. "Arazo hau konpontzea lehentasunezkoa zen Debako Udalarentzat. Bagenekien auzotar askori eragiten ziela aspalditik eta horregatik gogor lan egin dugu konponbidea bilatzeko".

Urte hasierarako

Esku-hartzea hainbat fasetan egingo da eta lanak 2026ko hasieran amaitzea aurreikusten dute. Segurtasun arrazoiengatik, ordura arte Gudarien Plaza itxita egongo da trafikoarentzat, baita oinezkoentzat ere; anbulantziek, zamalanetarako ibilgailuek eta inguruan garajea dutenek soilik izango dute sarbidea.

Taxi zerbitzua, berriz, geltoki zaharreko aparkalekura lekualdatu dute behin-behinean, lanek iraun bitartean.

Irudi berria aurkeztu du Debalai Merkataria eta Ostalarien Elkartek



Debalai Debako Merkataria eta Ostalarien Elkartek itxura berriarekin ekin dio ikasturteari. 2010ean elkarteak sortu zutenetik logo berbera erabili badute ere, orain, hamabost urteko ibilbidearen ostean, "irudi freskoagoa eta eguneratuagoa izatearen aldeko apustua" egin dutela jakinarazi dute taldeko ordezkariak.

Zehaztu dutenez, irudi berrian protagonismo berezia dute elkartearen izena osatzen duten bi hitzek eta, aldi berean, logo berriak "bi munduren arteko lotura" iradokitzen du: "Merkataritza eta komunitatea, tradizioa eta berrikuntza, Deba eta alaitasuna". Beren esanetan, hain zuzen, "elkartearen izenaren bidez mezu argia helarazten da: babesetik, elkarlanetik eta giro positibotik eraikitzen den merkataritza eta ostalaritza sare bat; *Zurekin, gertu, lagun eta herrikide* lelopean".

Gainera, sare sozialetara ere jauzi egin du elkarteak, @debalaielelkartea Instagram kontua zabalduta.

Elikagaien Astea eta 'Debalai pintxo' ekimena

Bestalde, irailaren 22tik 26ra bitartean Elikagaien Astea ospatzen ari da elkarteak. Bertan, herritarrek tokiko komertzioetan egindako erosketengatik tiketak jaso dituzte, elikagaiekin osatutako saskien zozketan parte hartzeko. 11 saltokik parte hartu dute ekimenean eta beste hainbeste saski zozkatuko dituzte hilaren 26an.

Egun berean, gainera, *Debalai pintxo* ekimena egingo dutela ere iragarri dute. "Erosketekin banatutako tiketak erabilia, herritarrek pintxoek gozatzeko aukera izango dute egun horretan". Aipatutako ekintzak Debako Udalarekin elkarlanean antolatu dituzte.

Mikel Irustak eta Joseba Galarragak irabazi dute udako argazki lehiaketa

Berriketan herri komunikabideak antolatutako argazki lehiaketak baditu irabazleak. Epaimahaiaren sari nagusia Mikel Irustak eskuratu du, uda sasoian Nam Xay-en (Laos) ateratako irudiarekin; Yurrita arrain kontserben produktu sorta jaso du, baita herriko ekoizleen edota sortzaileen lanekin osatutako saskitxo ere.

Publikoaren saria, berriz, Joseba Galarragarentzat izan da; herritarrek lehian egon diren argazki guztien artean gustukoena hautatzeko aukera izan dute eta Santa Katalinan ateratako argazkia nagusitu da Interneteko bozketan. 688 boto eman dituzte herritarrek, eta 105 boto jaso ditu Galarragaren irudiak. Boto horiei esker, Yurrita arrain kontserben produktu sorta bat irabazi du egileak. Irailaren 2an abiatu zen lehiaketa eta irailaren 14ra artekoa izan da argazkiak bidaltzeko epea. Munduko hainbat herrialdetan ateratako 22 argazki aurkeztu dituzte orotara; Deban bertan egin-dako irudi ugari izan dira tartean.

Berriketan-ek eskerrak eman dizkie modu batean zein bestean lehiaketan parte hartu duten guzti-guztiei.



Arg.: MIKEL IRUSTA



Arg.: JOSEBA GALARRAGA

AITOR
TABERNA

Lersundi kalea 25

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan

ESKERRIK ASKO, UR-LAGUNAK!

Ura bizia da. Paregabea.
Ongietorria bedi bizia zaintzeko ekarpen oro, bada.
Administrazioek, enpresek, elkarteek, herritarrek... elkarrekin babesten ditugu ibaiak, lakuak, hezeguneak, estuarioak, akuiferoak, kostaldeak...
Eskerrik asko, Ur-Lagunak!

UR-LAGUNAK.
URA DA. GU GARA.



Aisialdirako gunea

Arg.: JUAN IGNACIO AIZPURUA

Orain dela 50 urte, leku hau oso preziatua zen: harribitxiak, arrantzarako zizareak, karramarroak (lapatxoak), izkirak eta txirlak ikusten genituen bertan, baita angulak ere harrien azpian. Eta, gaur egun, olgetarako lekua da; itsasbeherak azalera handiko lur eremua uzten du agerian eta, gainera, bertaraino itsasadarraren pasealekutik jaitsi gaitezke.



19 bikotek eman dute izena urrian hasiko den Nesken Binakako XIII. Pala Txapelketan



Iruleak Emakume Pilotariak kirol klubeko kideek jakinarazi dutenez, urriaren hasieran abiatuko da Nesken Binakako Pala Txapelketa. "Lehen partidak urriaren 2an edo 5ean izango dira eta txapelketa azaroaren 22an amaituko da", zehaztu dute. Partidak astero jokatuko dituzte: ostegunetan 19:00etan hasiko dira, ziur aski; igandetan, berriz, 10:00etan.

Deba, Mutriku, Elgoibar, Eibar, Zumaia, Zarautz, Oiartzun eta Zizurkildik etorritako emakumeek osatuko dute jokalarien taldea. Guztira, hemeretzi bikotek parte hartuko dute: bederatzi lehen mailan ariko dira, eta beste hamar bigarrenean. Antolatzaileek nabarmendu bezala, "pozgarria" da hainbeste emakume palan ikustea. "Guretzat garrantzitsua da emakumeek kirolean ikusgarritasuna izatea. 38 emakume lehian ibiltzea, eta maila onean gainera, ez da edozein kiroletan ikusten".

Gazteentzako pala eskola

Bestalde, Euskal Jolas eta Iruleak taldeek pala eskola antolatu dute gazteentzako; eskaintza LH6tik DBH-3ra arteko ikasleei zuzenduta dago. Ikastaroa urrian hasi eta maiatzean amaituko da eta, zehaztu dutenez, entrenamenduak asteazkenetan izango dira, 17:00etatik 18:30era. Interesa dutenek 685 75 50 74 telefono zenbakira deitu edo iruleak@gmail.com posta elektronikora idatzi dezakete, irailaren 29a baino lehen. Ikastaroaren prezioa 60 eurokoa da.

Euskal selekzioak brontzea lortu du Munduko Trinket Txapelketan

Manex Prieto Euskal Jolas taldeko palista debarra brontzeko dominarekin itzuli da Argentinan jokaturako 23 urtez azpiko Munduko Trinket Txapelketatik. Irailaren 14tik 20ra bitartean jokatu zen norgehiagoka eta debarra euskal selekzioaren ordezkari izan zen, Peru Egurbide hautatzailearen esanetara. Larruzko modalitatean aritu zen taldeak hirugarren postua eskuratu zuen, Mexikoko selekzioa mendean hartu ondoren.

Euskal selekzioarekin lehen esperientzia bizi izan du Prietok eta, azkenean jokatzeko aukerarik izan ez duen arren, pozik azaldu da maila gorenean parte hartu eta taldearekin podiuma zapaltzea lortu duelako.

Azaldu duenez, lesio baten ondorioz, debarrak ezin izan zuen kantxaratu. Oraindik ere ez du urte luzez pilotutako esperientziarik trinketean eta, hori kontuan hartuta, ez zuen titular izatea espero. Baina aitortu du bazuela minutu batzuk jokatzeko itxaropena. "Entrenamendu batean eskuin besoko trizepsean min hartu ondoren, debutatzeko aukerarik gabe geratu nintzen. Pena bat da. Ez da beso berean lesioa dudan lehen aldia".



Autodefentsa ikastaroa berriz antolatzeko asmoa azaldu dute

Jaien atarian egin zuten emakumeentzako autodefentsa tailerra errepikatzeko asmoa dutela azaldu dute Jo Ta Su Boxing klubeko ordezkariak eta txosna batzordeko eragileak. "Jarduera hau antolatzen dugun lehen aldia da, baina izan zuen arrakasta eta piztu zuen interesa ikusita, ez dugu baztertzeko saio gehiago antolatzea".

Azpiarratu dutenez, txosna guneko protokoloaren aurkezpena ere barne hartzen zuen egitarauaren baitan egin zuten tailerra, boxeo klubaren lokal berrian. "Bertaratu zirenek eraso arrunten aurkako oinarritzko teknikak landu zituzten. Bi ordu eta erdiko saioa izan zen".

“Gogor ari naiz entrenatzen eta esango nuke munduko txapelketan emaitza onak lortzeko aukerak ditudala”

OINATZ IRUSTA GARCIA • Jiu-jitsu borrokalaria



Irustak bi domina lortu zituen euskal selekzioarekin otsailean jokaturako Espainiako Jiu-jitsu Txapelketan: urrea grappling gi modalitatean, eta zilarra grappling borroka-moldean. Atsedenerako tarte handirik hartu gabe, azaroan Grezian jokatu den Munduko Jiu-jitsu Txapelketa prestatzen dabil orain eta gogotsu dagoela aitortu du. Espainiako selekzioarekin lehiatuko da, 17 urtez azpikoen mailan (50 kiloz azpiko kategorian).

Haurra zenetik praktikatu du capoeira Oinatz Irustak (Deba, 2008). Orain dela pare bat urte ezagutu zuen jiu-jitsu brasildarra eta ordutik buru-belarri dabil kirol horretan sartuta. Lorpen handiak eskuratu ditu honezkero. Besteak beste, zilarrezko eta urrezko domina banarekin itzuli zen otsailean Albaceten jokaturako Espainiako Jiu-jitsu Txapelketatik; grappling modalitatean bigarren izan zen debarra, eta grappling gi modalitatean txapeldun. Azaroan Greziara bidaiatuko du, hilaren 1etik 4ra Loutrakinjokatu den mundu mailako jiu-jitsu txapelketan parte hartzeko —bi modalitateetan ariko da berriz ere—.

Nolatan hasi zinen jiu-jitsu brasildarra bezalako kirol batean?

Betidanik egin izan dut capoeira; lau bat urte nituela hasi nintzen, Jon Montielekin. Eta boxeoa ere aritzen naiz... Egia esan, denbora gutxi daramat jiu-jitsua mundu honetan sartuta. Lagun baten bitartez ezagutu nuen eta asko gustatu zitzaidan, gustura nabil. Aurrera begira, arte martzial mistoetan aritzea ere (ingelesez *Mixed Martial Arts* edo MMA) gustatuko litzaidake, baina ikusiko dugu...





“Arte martzialetan oso garrantzitsua da taldearen babesa eta mundu honetan sartzen dena erraz jabetzen da horretaz”

“Beste txapelketa garrantzitsu bat dagoenean berriz emango diot egurra, ondo prestatu eta lehian parte hartu ahal izateko”

Zertan datza jiu-jitsua?

Nik jiu-jitsu brasildarra egiten dut. Berez, arte martzial bat da. Baina, kasu honetan, ezin da aurkaria kolpatu. Bestea lurrera botatzeko proiektzioak, giltzak edo itoa-razteko teknikak erabiliz, aurkaria mendean hartzea eta hark amore ematea da helburua.

Judoaren antza dauka?

Bai, antzekoak dira, baina jiu-jitsuan borrokari jarrai-pena ematen zaio lurrean. Judoan, zuk aurkaria lurrera botatzen baldin baduzu, bukatutzat ematen da borroka, eta hark galtzen du. Jiu-jitsuan ez, badago zuzenean lurrera botatzen den jendea, borrokaldi osoa lurrean egiteko helburuz (eta ez zutik); puntuka galtzen da, edo borroka amaitutzat ematen delako bestela.

Zergatik gustatzen zaizu hainbeste?

Jende askok daki ukabilkadak eta ostikoak ematen, baina ia inork ez daki jiu-jitsuan erakusten den guztia: jendea lurrera ondo botatzen, aurkaria itoazten, luxazioak eragiten... Teknika zenbat eta gehiago menperatu, orduan eta borroka hobea. Bestalde, oso garrantzitsuak diren baloreak hartzen ditugu oinarri.

Zeintzuk?

Errespetua, diziplina, konstantzia, hobetzeko grina edo superazioa... Gimnasioan sartzean, irakasleak gogorazten digu atea oso handia dela bertara sartzeko, eta

oso handia era berean norbait bertatik botatzeko. Denok errespetatzen ditugu, beraz, balore horiek. Inoiz ez dut izan halako irakaslerik, egia esan; beti dago hor, arazo bat dudan bakoitzean... Askok laguntzen digu.

Emaitza ederrak lortu zenituen Espainiako txapelketan. Gustura al zaude lorpenekin?

Bai, oso pozik itzuli nintzen. Askok eta gogor entrenatu nintzen txapelketa prestatzeko eta zentzu horretan konfiantza handia nuen neure buruarengan, baina oraindik denbora gutxi daramat kirol honetan eta zailantzak ere banituen...

Azaroan Greziara bidaiatuko duzu, mundu mailako txapelketan Espainiako selekzioarekin lehiatzeko. Urduri?

Beno, oraindik ez larregi. Dena dela, badakit data gerturatzeko doan heinean urduriago jarriko naizela. Beste bi kiderekin noa txapelketara.

Lau eguneko lehia izango da, ezta?

Bai. Azaroaren 1etik 4ra joango naiz Loutraki hirira, bi egunetan ariko naizelako borrokan; egun batean modalitate batean eta bigarrenetan bestean. 17 urtez azpiko eta 50 kilora arteko kategorian lehiatuko naiz.

Zer espero duzu txapelketaz?

Tira... Gogor ari naiz entrenatzen eta esango nuke munduko txapelketan emaitza onak lortzeko aukerak ditudala. Denbora luzez nabil txapelketa hau gogoz pres-



tatzen. Batzuek astean bitan bakarrik egiten dituzte saioak eta gu aste osoan entrenatzen gara, larunbatetan ere bai. Ez gabiltzanean jiu-jitsuan gimnasioan aritzen gara eta beste askorekin alderatuz gero, entrenamendu bikoitza egiten dugu. Horrek aukerak emango dizkigu, ondo prestatuta goaz eta. Gainera, nire pisu eta altuerakoak izango dira aurkariak; beraz, irabazteko aukera gehiago izan ditzaket.

Gogor doaz, hortaz, prestaketak...

Bai. Batzuetan, goizez egiten ditut jiu-jitsuko entrenamenduak, eta, bestetan, arratsalde aritzen naiz. Ekainaz geroztik, egunero-egunero entrenatzen naiz. Bestalde, gimnasioan ere banabil... egunean, beraz, ia lau orduz entrenatzen naiz. Gainera, dieta jakin bat daramat orain.

Eta erraza al da entrenamenduak ikasketekin uztartzea?

Bai, bueno... Zumaiako Soldadura Zentroan dihardut ikasten eta irailean hasi dugu ikasturtea. Beraz, azarora bitartean, suposatzen dut goizez eskolan ariko naizela; handik irten, bazkaldu eta gimnasia joko dut arratsaldetan eta gimnasioko saioa amaitzean, aldiz, jiu-jitsura.

Txapelketetan taldeka edo banaka lehiatzen zarete?

Berez, banakako borrokak eta txapelketak izaten dira, norbere izenean lehiatzen gara. Zuzenean galdetzen dizute txapelketara joan nahi duzun eta zurea da erabakia. Dena dela, oso harreman estua daukagu denon

artean (Igor entrenatzailearekin, beste kide guztiekin...) eta familia bat izango bagina bezala sentitzen gara. Arte martzialetan oso garrantzitsua da taldearen babesa eta mundu honetan sartzen dena erraz jabetzen da horretaz, izan Zarautzen edo beste edozein gimnasioan.

Zarautz aipatu duzu. Bertan entrenatzen zara beti?

Bai, Gracie Barra Zarautzen. Gainera, batzuetan Irunera joaten naiz, konpetiziozko entrenamendu saioak egitera.

Beste kirol batzuekin alderatuta, jiu-jitsuak ez du agian hainbesteko oihartzunik. Nola ikusten duzu zuk? Kirol hori praktikatzen duen gazte asko al dago inguruotan?

Gure gimnasioan jende pila bat aritzen da jiu-jitsuan. Gainera, Zarautzen ez ezik, Gracie Barra Irunen, Donostian, Iruñean... ere badago, eta Zumaiian ere orain zabalduko dute berri bat. Esango nuke azkenaldian jende gehiago dabilela honetan; boxeoa eta arte martzialetan dabilzanek ere jiu-jitsua praktikatzen dute batzuetan...

Aurrera begira, zer asmo duzu? Jiu-jitsuan eta lehian jarraituko duzu?

Asko gustatzen zait eta aurrerantzean ere honetan jarraitu nahiko nuke. Atsedean ere hartuko dut ziur aski, intentsitate handiko entrenamenduak egiten baititut egun askotan eta hori oso gogorra da... Baina beste txapelketa garrantzitsu bat dagoenean berriz emango diot egurra, ondo prestatu eta lehian parte hartu ahal izateko.

Iraila / Urria

IRA. 26 (OSTIRALA)

ELKARRETARATZEA

19:30 Euskal preso eta iheslarien giza eskubideen alde. Foruen Plaza.

EMANALDIA

19:30 Kalean Kantuz.

IRA. 27 (LARUNBATA)

EUSKAL JAIA

Goizean Segurako taloak. Plaza Zaharra.

11:00 Kalez Kale txistulariak.

11:00 Sagardo kupelak. Plaza Zaharra.

11:30 Zubietako joaldunak.

12:00 Gure Kai eta Musika Eskolako dantzariak.

13:30 Trikitilariak.

15:00 Bazkari herrikoia.

Ondoren, irrintzi txapelketa.

Aldats pilotalekua.

18:00 Buruhandiak.

19:00 Debrass Band.

23:00 Obaneuke. Foruen Plaza.

ATE IREKIAK

11:00 Itziarko eskola berria.

'GUDARI EGUNA'

Autobusa Iruñera.

14:45 Paseo estalia.

14:55 Itziarko geralekua.

IRA. 28 (IGANDEA)

MAGIC TXAPELKETA

10:00 Ligako 8. jardunaldia. Kultur Elkarteko liburategia.

ZINEMA

19:00 'Parthenope'. Kultur Elkartea.

URR. 3 (OSTIRALA)

KULTUREKIN

20:00 Antzerkia: 'Destiny driver' (Getari Etxegarai eta Ugaitz Alegria). Kultur Elkartea.

URR. 4 (LARUNBATA)

MERKATU TXIKIA

09:30 Paseo estalia.

'PALESTINA ASKATU'

MOBILIZAZIOA

09:30 Autobusa Iruñera.

Paseo estalia.

URR. 5 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'Anora'. Kultur Elkartea.

URR. 6 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN

MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

URR. 8 (ASTEAZKENA)

HITZALDIA

18:30 'Gure aitona-amonek Halloween ospatzen zuten'. Kultur Elkartea.

URR. 11 (LARUNBATA)

IRTEERA GIDATUA

11:00 'Lastur familian'. Erreserbak: geoparkea.eus.

URR. 12 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA

08:30 Iturriotz-Zelatun-Bidania. Paseo estalia.

IPUIN KONTAKETA

17:30 Debako Kontalarien eskutik. Ispiluen gela.

ZINEMA

19:00 'No otherland'. Kultur Elkartea.

URR. 14 (ASTEARTEA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'El cuaderno prohibido'. Liburutegia.

URR. 16 (OSTEGUNA)

HITZALDIA

18:30 'Heriotzari begirada bat doluaren akonpainamendutik'. Kultur Elkartea.

URR. 17 (OSTIRALA)

BAKARRIZKETA

20:00 'Margolari' (Manex Astigarraga). Kultur Elkartea.

URR. 19 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA

07:15 Arrankudiaga-Ganekogorta-Alonsotegi. Paseo estalia.

ZINEMA

19:00 'Aun estoy aqui'. Kultur Elkartea.

URR. 20 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN

MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

URR. 23 (OSTEGUNA)

IRTEERA

09:00 Gernikara, Arbilen eskutik. Hondartza sarrera.

ESKULAN TAILERRA

18:00 'Birziklatu eta sortu'. Kultur Elkarteko liburutegia.

DIRUI AGUNTZAK

Aurreko ikasturtean euskara ikasi dutenentzako eta 2025-2026an hizkuntza ikasten ariko direnentzako
Eskaerak aurkezteko epea: irailak 30. Oinarriak: deba.eus.

LEHIAKETAK

XX. Tene Mujika beka
Aurkezteko epea: abenduak 14. Oinarriak: deba.eus.



ZAINTZAKO BOTIKA Egunez (09:00-22:00)

BURGOA

Ira. 29, 30 / Urr. 1, 2, 17, 18, 19, 27, 28, 29, 30.

ZALDUEGI

Urr. 3, 4, 5, 13, 14, 15, 16, 31.

Larunbat goizetan beti bat irekita (09:30-13:00)

BURGOA Irailak 27 eta urriak 18, 25.

ZALDUEGI Urriak 4, 11.

OHIKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera
(09:00-13:45 / 16:30-19:30)

Guardia egunetako igandeak
eta jaiegunak (11:00-13:00)

Itziarko botikina (09:00-12:30)

BURGOA 667 33 88 90
ZALDUEGI 669 26 22 01



Eskelak



Hildakoen eskelak, urteurrenak eta oroigarriak argitaratzen dira atal honetan. Horietako bat jarri nahi izanez gero, 632 04 33 22 telefonora deitu edo idatzi berriketan@berriketan.eus helbidera.

Eskela guztiak berriketan.eus/eskelak estekan egongo dira ikusgai.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

943 741 327 (24 orduz) / 635 756 295 / 629 635 203

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Eriete zentruetan zerbitzuak.



MIKEL INIGUEZ
DENTAL STUDIO

ODONTOLOGIA DIGITALA

INPLANTOLOGIA

PERIODONTZIA

AHO KIRURGIA

AHO-ERREHABILITAZIOA ETA ESTETIKA

SEDAZIO KONTZIENTEA

CBCT 3D TEKNOLOGIA

RPS: 81/25



WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM

 [INIGUEZ_DENTALSTUDIO](https://www.instagram.com/INIGUEZ_DENTALSTUDIO)

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR

 616 68 03 11

HITZ GURUTZATUAK

Zailtasuna: Erraza

				Landare erresumingarri	▼	Suge mota	▼	Arnasa hartu ezinik hil	▼	
				Debako auzoa		📷 ABIZENA		Kasik	▶	
					▶		▼	Infusio mota	▶	
								Nortasun Agiri Nazionala		
				Zazpigarren planeta	▶				▼	
				Ugaztun karraskari						Pluraleko lehen pertsonaren izenordaina
				▼				Eserlekuak		Lagunarteko bokatiboa
										▼
Debako santutegia	▶			Kontsonantea	▶	Elizari dagokiona	▶		▼	
Musika nota	▶			Botaka		Bokala				
▶				Orea egin, nahastu	▶				Izpi mota	▶
				Krudel					Albiste	
										Antzinako Grezian, hirietako plaza publikoa
Itziarko ganadutegia	▶		▼			Hegala	▶		▼	
📷 IZENA						Azken hizkia				▼
▶						▼		Suari darion gas multzoa	▶	
								Boroaren ikur kimikoa		Gramo
										Lehen hizkia
Ingelerazko esapidea	▶			Oxigenoaren ikur kimikoa	▶	Maldizio	▶			▼
Hain zuzen				Gipuzkoaren laburdura		Minaren onomatopeia				
▶				▼		▼		Argonaren ikur kimikoa	▶	
								Azken hizkia		Erresistentzia elektrikoa
										▶
Jardun	▶				Itsaski mota	▶			▼	

Egilea: Alex Turrillas Gonzalez

Erantzunak ondorengo estekan ikusgai: www.berriketan.eus/denborapasak



Deba

Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20

20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com

T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra

Kirurgia

Implanteak

Ortodontzia tradizionala

Invisalign ortodontzia (Ikusezina)

Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako

aukera ere eskaintzen dugu.



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Taxi Alain

Zure zerbitzurik onena



636 135 008 • www.taxideba.eus



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00

F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com



ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



*Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Mikel

ITURGINTZA

- GASA
 - BEROKUNTZA
 - ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus



Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

**Ikasi
ingelesa
atzerrian**

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Ezagutu
zure herrian
dauden taldeak
edo egin zure
proposamena!

Eta euskaraz egiten badugu?



EMAN IZENA!

Izen ematea: **Urrian zehar**
943 191 383



**taupamugimendua.eus/
mintzapraktika**

Antolatzaileak



Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



KULTURA ETX. HOKUNTZA,
POTITIKIA S.A.L.A.